

**European Network of Ombudspersons for Children
(Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea)**

**“Haur eta nerabeen eskubideak eta justizia klimatikoa”
adierazpen instituzionala**

***ENOCek 2022ko irailaren 21ean egindako 26. batzar orokorrean onartua
Reykjavik, Islandia**

HITZAURREA

ENOCen 2022ko adierazpen instituzional hau Sareko kideek haur eta nerabeen ingurumen-eskubideez duten kezkatatik sortu da, eta bereziki, klima-krisia haur eta nerabeen eskubide eta interesentzat berehalako mehatxua delako. Beraz, klima-krisiaren urgentzia oinarritzen da, bai eta klima-aldaketa arintzearen alde egiten duten mundu osoko haur eta gazteen ekintzetan ere.

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioari eta beste mekanismo batzuei jarraituz, haur eta nerabeei egokitutako sistema judizialak eskaini beharra dute estatuek. Haurren Defentsa-erakundeak egoera paregabea daude haurrek eskubideak balia ditzaten bidean aurrera egiteko. Ondo kokatuta gaude haurren eta estatuen arteko bitartekari-lanak egiteko, eta justiziara jotzeko haien eskubidea aurrera eginarazteko. Beraz, egungo klima-krisia ikusita, arreta handiagoa eskaini nahi diegu justizia klimatikoari lotuta haur eta nerabeek dituzten eskubideei. Adierazpena “Haur eta nerabeen eskubideak eta justizia klimatikoa” ikerlanean¹ eta ENOCeko kideei egindako kontsultan oinarrituta dago. Halaber, Europako Kontseilari Gazteen Sareak (ENYA)² egindako lanarekin elikatu eta aberastu da. Haur eta nerabe guztien kasuan bezala, funtsezkoa da entzun diezaiegun eta justizia klimatikorako sarbidea izan dezaten, hezkuntza- eta partaidetza-bide hobeen bidez.

¹ Ikusi: <https://enoc.eu/wp-content/uploads/2022-Synthesis-Report-Climate-Justice.pdf>

² Ikusi ENYA 2022: <https://enoc.eu/enya-2022-lets-talk-young-lets-talk-about-climate-justice/>

Aitortzen dugu bermatu behar dugula hurrek beren giza eskubideak balia ditzatela eta beren eskubideak erreklamatzeko aukera izan dezaten, baita justiziara joz ere. Argi dago Europa osoko haur eta nerabeak kezkatuta daudela klima-aldaketaren eraginaren ondorioz. Hori aintzatetsita, guk, Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sareko (ENOC) kideok, gobernuei, Europako Batzordeari eta Europako Kontseiluari eskatzen diegu behar diren neurri guztiak har ditzatela hurrek ingurumen osasungarria izateko duten eskubidea errespetatu, babestu eta betetzeko. Eragile horiei eskatzen diegu, bereziki, klima-krisia arintzeko behar diren neurri guztiak har ditzatela, haur eta nerabeek eta etorkizuneko belaunaldiek etorkizun osasungarria izan dezaten. Horren parte erabakigarri bat da haur, nerabe eta haien aliatuek ingurumen-justiziarako sarbidea izan dezaten bermatzea.

Gomendio hauek egitean, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan ingurumen osasungarrirako eskubideari buruz finkatutako xedapenak gauzatzearen alde egiten dugu. Horien artean daude Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren printzipio orokorrak, hau da, haur eta nerabeek entzunak izateko eta beren iritzia behar bezala kontuan hartzeko duten eskubidea (12. artikulua); haien interes gorena funtsezko kontsiderazioa izateko eskubidea (3. artikulua); bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea (6. artikulua); eta diskriminaziorik eza (2. artikulua). Haurren gaitasunen bilakaeraren printzipioa ere jasotzen du (5. artikulua); bai eta osasunerako eskubidea ere, ingurune osasungarria barne (24. artikulua). Era berean, ingurumen osasungarria izateko eskubidea aitortzen dugu, eta NBEren Batzar Nagusiak [A/76/L75 Ebazpenean](#) aitortzearen alde egiten dugu.

Gomendioek helburu dute, halaber, hurrei egokitutako justiziar buruzko Europako Kontseiluaren Gidalerroak aplikatzen laguntzea. Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Batzordeak haurren eskubideei eta ingurumenari buruz (klima-aldaketari bereziki erreparatuta) emango duen hurrengo Ohar Orokorrarekin lotuta ere egiten dira.

Aztertu ditugu nazioarteko beste tresna batzuk, legezkoak zein bestelakoak, lotesleak zein ez-lotesleak, hurrek ingurumen osasungarria izateko duten eskubidearekin zerikusia dutenak, Parisko Akordioa eta Aarhusko Konbentzioa barne;

Azpimarratzen dugu estatuek hartu beharra dutela Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren eskubideak aplikatzeko behar diren legegintzako, administrazioko eta bestelako neurri guztiak, haren 4. artikulua araberera;

Aintzatesten dugu haur eta nerabeen eskubideek lotura estua dutela ingurumenarekin, baita urarekin, elikagaiekin, habitatarekin, biodibertsitatearekin, garapen-testuinguruarekin eta beste hainbat faktorekin ere;

Aintzatesten ditugu Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioren printzipio orokorrak, baita haur eta nerabeek entzunak izateko eta beren iritziak behar bezala kontuan hartzeko eta, beraz, prozesu politikoetan parte hartzeko duten eskubidea ere;

Aintzatesten dugu haur guztiek eskubidea dutela beren ingurunean sartzeko, ikasteko, jolasteko eta garatzeko;

Aintzatesten dugu klima-krisia eta ingurumen-kalteen ondorioak bizikiago jasaten direla kalteberatasun-egoeran dauden biztanleriaren segmentuetan, haur eta nerabeak barne;

Aintzatesten ditugu ingurumen osasungarriaren alde lan egiten eta kanpaina egiten ari diren mundu osoko haur eta gazteen ahaleginak;

Aintzatesten dugu estatuen erantzukizuna dela haur eta nerabeek ingurumen osasungarria izateko duten eskubidea sustatu eta babesteko dauden printzipio eta neurriak hobetzea;

Aintzatesten ditugu erakunde pribatuek (hala nola enpresak eta industriak) betetzen duten funtsezko eginkizuna, eta erakunde pribatuek ingurumena errespetatu dezaten behar den erregulazioa bermatzeko Estatuak duten erantzukizuna;

Aintzatesten dugu estatuei erantzukizuna dutela justiziara iristeko borrokan ari diren haur eta nerabeek laguntza, lege-mekanismoak eta informazio nahikoa, adinari egokitua eta eskuragarria izan ditzaten bermatzeko;

Gogorazten dugu gure aurreko adierazpena, zeinean nabarmentzen baikenuen haur eta nerabeen eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioek eskubide horien defentsan duten zeregina;

Horrenbestez, ENOCek estatuei, nazioko, eskualdeko eta nazioarteko agintari eta erakundeei, erabakiak hartzeko arduradunei, enpresei eta industriari eskatzen die ahalegin handiagoa egin dezatela haur eta nerabeek ingurumen osasungarria izateko duten eskubidea egia bihurtzeko, bereziki justizia klimatikoa kontuan hartuta.

ENOCen Haurren Defentsa-erakundeen eta komisionatuen konpromisoak

- ENOCeko kideek lan egingo dute ingurumenaren alde ari diren haur eta gazte aktibistei laguntzeko;
- ENOCeko kideek aztertuko dute ea ikerketa bat egin behar den aztertzeko zer aukera duten haur eta nerabeek ingurumen-justiziara jotzeko (adibidez, ea laguntza juridikoa eskura dezaketen horretarako). Oztopoak identifikatuko dituzte, eta justizia klimatikoaren aldeko kanpaina egingo dute.

ENOCeko kideek lanean jarraituko dute haur eta nerabeek informazio eskuragarria eta beren adinerako egokia izan dezaten kexa bat aurkezteko moduari buruz edo Haurren Defentsa-erakundeekin elkarreragiteko moduari buruz.

Halaber, ENOCek estatuei zein estatuetak, eskualdeetako, Europako eta nazioarteko agintariei eta kasuan kasuko beste agintaritza guztiei honako gomendio hauek hartzeko eskatzen die:

Haurren interes gorena bermatzea klima- eta ingurumen-ekintzan

- Bermatzea haur eta nerabeen interes gorena funtsezko irizpidea dela ingurumen-lege, -plan eta -politika guztietan;
- Legeetan eta/edo erregelamenduetan (kasuan kasukoa) adieraztea eragile pribatuek adingabeak babestu beharra dutela ingurumen-kalteetatik;
- Prebentziozko ikuspegia hartzea haur eta nerabeek ingurumen-kalteetatik babesteko;
- Ikerketak egitea klima-aldaketak haurren eskubideei eragiten dien kalteari buruzko informazioa eta analisiak emateko, eremu geografikoen eta adin-tarteen arabera bereizitako datuak biltzea barne, eta, bereziki, desgaitasunak dituzten haurren, pobrezian bizi diren haurren eta haur indigenen taldeen egoerari buruzkoa;
- Azaltzea nola errespetatu den haur eta nerabeen interes gorenaren printzipioa ingurumenarekin lotutako erabaki zehatz batean. Kontuan hartu behar dira kasuan kasuko lurraldean sortutako karbono-isurpenek zer ondorio kaltegarri eragiten dizkieten adingabeei, lurralde horretan bertan nahiz lurralde horretatik kanpo;
- Bermatzea haur eta nerabeek osasunerako duten eskubidea (osasun mentala

barne) ingurumenarekin/klimarekin lotutako politiketan funtsezko irizpide bat dela bermatzea;

- Bermatzea plan klimatikoek (estatu-mailan zehaztutako ekarpenak) eta justizia klimatikoari buruzko legeriak eta politikek behar bezala kontuan hartzen dituztela haurren eskubideak, eta haien parte hartzen dutela sistematikoki;
- Haurren eskubideen gaineko eraginaren ebaluazioak (CRIA) gobernuaren prozesuetan txertatzea, ahal bezain laster, lege eta politika klimatikoak garatzean. Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa esparru gisa erabili beharko litzateke CRIA ebaluazioak egiteko. CRIA ebaluazioak era gardenean aplikatu behar dira, eta lehenetsun politikoa izan behar dute;
- Bermatzea haur eta gazteek aukera nabarmenak eta inklusiboak dituztela bizitza publikoan eta politikoan parte hartzeko, klima-aldaketarekin eta justizia klimatikoarekin lotutako legeen eta politiken ebaluazioan bereziki.

Haur, gazte eta helduei giza eskubideei buruzko hezkuntza ematea, ingurumenari buruzkoa barne

- Bermatzea giza eskubideen arloko hezkuntza integral eta nahitaezkoa, haurren eskubideak barne, haurren hezkuntza-etapa guztietan;
- Bermatzea giza eskubideen aldeko hezkuntzaren programetan agertzen dela ingurumen osasungarrirako eskubidea, klima-aldaketa eta biodibertsitatearen errespetua barne. ENYAk gomendatzen duen bezala, lehen haurtzaroan hasi behar du, eta ikaskuntza aktiboko metodoak izan behar ditu, hala nola txangoak, lantegiak, eztabaidak eta berdinen arteko hezkuntza;
- Bermatzea haurren eskubideen gaineko hezkuntzak adingabeen eskubide zibil eta politikoak barne hartzen dituela, eta behar diren ezagutzak eta gaitasunak ematen dizkiela giza eskubideen aldarrikapenean eta defentsan jarduteko, ingurumen osasungarria izateko eskubidea barne;
- Irakasleei eta gainerako eskola-langileei ematea behar diren prestakuntza eta baliabideak, haur eta nerabeen eskubideei (ingurune osasungarria izateko eskubidea barne) buruzko hezkuntza eraginkorra emateko.
- Bermatzea giza eskubideen (ingurumen osasungarrirako eskubidea barne) aldeko hezkuntza ematen zaiela helduei, profesionaleri zein senitartekoei;

- Haur eta nerabeak inplikatzeari natura-ingurune hobeto ulertzeko eta errespetatzeko komunikabideetan jarduerak antolatzen, kanpainak egiten eta azterketa-planak eta pedagogia diseinatzen.

Errespetatzea adingabeek informazioa bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko duten eskubidea.

- Bermatzea haur guztiek balia dezaketela ingurumenari eta klima-aldaketari buruzko informazio fidagarria bilatu, jaso eta zabaltzeko duten eskubidea;
- ENYAk azpimarratzen duenez, galdegitea erakunde publikoei ingurumenaren eta klima-aldaketaren gaineko informazio publikoa eman dezatela haur eta nerabeei egokitutako formatu eskuragarrietan;
- Ematea esparru seguruak eta aukerak haur eta nerabeek ingurumenari eta klima-aldaketari buruzko informazioa eta ikuspuntuak parteka ditzaten hainbat formatutan, “ideiak trukatzeko aukera emango duten sarean lan egiteko bideak” ematea barne, ENYAk proposatzen duen bezala;
- Bermatzea hurrek informazioa bilatu, jaso eta emateko dituzten eskubideen murrizketa guztiak legezkoak, beharrezkoak eta proportzionatuak direla;
- Klima-aldaketaren arloko informazio fidagarrirako sarbidea erraztea, hedabideei buruzko alfabetatzeari eta pentsamendu kritikoari buruzko informazioa eta prestakuntza ematea, eta egiazko informazioarekin aurre egitea albiste faltsuei, ENYAk gomendatzen duen bezala.

Entzunak izateko eta beren iritzia kontuan har dadin haur eta nerabeek duten eskubidea errespetatzea.

- Bermatzea haur eta nerabe guztien iritzia biltzen direla, bai eta ingurumenari/klima-aldaketari buruzko politikari eta erabaki publikoak hartzeari dagokionez behar besteko garrantzia ematen zaiela ere. ENYAk azpimarratzen duenez: “adingabeek klima-aldaketari buruz duten iritzia entzun behar da”;
- Galdegitea ingurumenarekin eta klima-aldaketarekin lotutako politikei buruzko kontsulta guztietan sartzen direla haur eta nerabeekiko kontsultak, eta horiei egokituta daudela eta ulergarri egiten zaizkiela;

- Mekanismoak eskaintzea haur eta nerabeek ingurumenarekin eta klima-ekintzarekin lotutako gaiei buruzko iritziak eman ditzaten zenbait formatutan eta behar adina denbora eta baliabiderekin.
- Bermatzea haur eta nerabeek klima-aldaketari buruzko goi-bileretan parte-hartze nabarmena izango dutela;
- Bermatzea adingabeen iritziak zehaztasunez dokumentatzen direla, behar diren entzuleei iristen direla, seriotasunez hartzen direla/eragina dutela eta feedbacka jasotzen dutela;
- Haurren Defentsa-erakundeentzat arrazoizko diru-zuzkidura bermatzea, ingurumenaren arloan adinari egokitutako arreta eta laguntza emateko.

Modu baketsuan bilerak egiteko eta elkartzeko askatasunerako haurrek duten eskubidea errespetatzea.

- Bermatzea ingurumenaren defentsarako jarduerak egiten dituzten haur eta nerabe guztiek elkartzeko eta bilera baketsuak egiteko duten askatasuna balia dezaketela;
- Adin-mugak eta beharrezkoak ez diren beste oztopo praktiko batzuk kentzea, adingabeek elkarreak sor ditzaten edo elkarteetan sar daitezten.
- Legerian jasotzea haur eta nerabeek bakean biltzeko eta elkartzeko duten eskubidearen babesa;
- Haur eta nerabeei informazioa eta hezkuntza ematea elkartzeko eta bilera baketsuak egiteko beren eskubideei buruz eta eskubide horiek modu seguruan baliatzeko moduari buruz.
- Eskolei orientazioa ematea haur eta nerabeek bakean biltzeko duten eskubidea balia dezaketen moduari buruz, protesta egiteko eta elkartzeko eskubideak barne, bai eskolan, bai beste leku batzuetan;
- Poliziari orientabideak ematea haurren eskubideak lagundu, sustatu eta babesteko moduari buruz.

Haurrek justiziara jotzeko duten eskubidea errespetatzea

- Haur eta nerabeak ingurumen-justiziara iristeari buruzko datuak biltzea eta erkatzea ikerketak egitea, eta ingurumen-justizia hauren aldekoa dela bermatzeko planak garatzea;
- Bermatzea haurrek salaketa-mekanismoak eskuragarri izango dituztela ingurumen-kalteei (klima-kalteak barne) buruzko kexak aurkezteko.
- Bermatzea haur eta nerabeek laguntza juridiko egokia eta beste laguntza ekonomiko batzuk jaso ditzaketela, justizia-mekanismoak balia ditzaten errazteko;
- Bermatzea haur eta nerabeei egokitutako informazioa eskuragarri egongo dela, justizia-mekanismoetara jotzeko moduari buruz.



ENOCek Europar Batasuneko Herritartasun, Berdintasun, Eskubide eta Balioen Programaren finantzaketa jaso du. Argitalpen honen edukiak ENOCen iritzia baino ez du jaso, eta erantzukizuna ENOCena baino ez da. Europako Batzordeak ez du inolako erantzukizunik onartuko hemen bildutako informazioaren inguruko erabilerengatik.